

HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

marina.sagastizabal@ehu.eus

Lehen Hezkuntzako Gradua 1. maila

EDUKIAK

2. GAIA: SOZIALIZAZIOA

- Soziazazio agenteak: Eskola
- Soziazazio agenteak:
Komunikabideak



2. GAIA. Sozializazioa

Sozializazioaren agenteak: Eskola

ESKOLA




- **Eskola lehen baino instituzio oinarrizkoagoa** bilakatu da gizarte modernoetan, beste instituzio batzuek lehen baino mendekotasun handiagoa dute harekiko
 - Esaterako, gizarte tradizionaletan familian belaunaldiz belaunaldi nekazarien eta esku-lanak egiten zituzten beste langile batzuen lanbide prestakuntza transmititzen zen.
 - Egun, sarritan seme-alabek ez dute gurasoen lan jarduera bera egingo
- **Seme alabak eskolan zaintzen eta hezten dira:** oinarrizko trebetasunak garatuko dituzte lanean hasteko adinera arte eta trebetasun bereziak gero, eskolan jarraitzen badute.

ESKOLA. IKUSPEGI DESBERDINAK

Ikuspegi funtzionalista

Ikuspegi kritikoa

Ikuspegi funtzionalista



- Eskola ikasle bakoitzak **merituen eta trebetasunen** arabera etorkizuna **aukera-berdintasunean lantzeko espazioa** da
- Gizabanako **bakoitzak merezi duen posizio profesionala** du, trebetasunaren eta ikasketetan egindako ahaleginaren arabera.
- Eskola, ekoizpen sistemarentzat, aukera-berdintasuna lortzeko eta garunak biltzeko espazioa da

Ikuspegi funtzionalista

- **Eskolak gizarte-eredua transmitzeko funtzioa du:** arau eta balio adostasuna, gizarte-kohesioaren oinarria da.
- Eskolaren funtzioetako bat ikasleak **instituzioen balio eta arauen inguruan lortutako adostasun komunitarioa** barneratzea da

Talcott Parsons: "Eskolaren sozializazio-funtzioa, laburbilduz, gizabanako bakoitzean etorkizuneko bizitzan moldatzeko ezinbesteko baldintzak diren jarduerak eta trebetasunak garatzea da. Aldi berean, bi alderdi nagusi bereiz daitezke: gizarteko oinarriko balioak onartzeko jarrera eta joera, eta gizarte horretan rol jakin bat betetzearen aldeko jarrera. Horrenbestez, lanpostu apal bat betetzen duen persona bat herritar eredugarria izan daiteke gizartean egokitu zaion rola zintzo betetzen duelako, maila altuagoetan izaten diren gizarte-alderdiez eta arazoez gehiegi kezkatu gabe" (Parsons, 1990: 174).

Ikuspegi funtzionalista




- Eskola lehenengo **instituzio formal, inpersonal eta burokratiko** da
- Umeek helduen **instituzioen oinarrizko arauak** barneratzen dituzte
- Sozializazioa **errendimenduaren** inguruan gertatzen da:
 - Eskolan irizpide ez biologikoen araberako **estatus- diferentziazio bat** gertatzen da
- Gizartean ematen den **diferentziazioa errendimenduaren araberakoa** da.

Ikuspegi kritikoa

Birsortze teoriak

Erresistentzia teoriak

Ikuspegi kritikoa: birsortze teoriak



- **Louis Althusser:** Hezkuntza-sistema gizarte kapitalista **birsortzen** eraginkortasunez laguntzen duen estatu-aparatua da
 - Ikasleak **gizarte-klasearen arabera** aukeratuko du lanbide bat edo bestea
 - **Ideologia menderatzailea** irakatsiko da kultura-transmisioaren bidez
- Eskola modernoa “**Estatuaren aparatu ideologiko**” bat da

Ikuspegi kritikoa: birsortze teoriak

- **Pierre Bourdieu**: Bizi garen gizarte-inguruan ikasitako jarrera multzoari **habitus** esaten dio.
- Gizarteak baldintzatutako **pentsatzeko modua da habitus-a** eta gizartean **egoteko, hitz egiteko** eta **gizartea egiteko modu** batekin bat dator.
 - Eskolaren bitartez, *habitus* hori barneratuko dugu
- Eskoletan irakasten den kultura ongien kokatutako klaseen ondare ia eksklusiboa izan da urte askotan.
 - Hori dela eta, aurretiko **jarrera hobea dute familia oneko seme-alabek** eskola errendimendurako, haien gurasoen eta familien **kultura-kapitalari** esker.

“

El habitus es la sociedad inscrita en el cuerpo, en el individuo biológico.


Pierre Bourdieu

”

Ikuspegi kritikoa: birsortze teoriak

- Zenbait gizabanako bere ahaleginari esker gizarte-klasez aldatzeak (gizarte mugikortasunak) ez du klaseen egitura orokorra aldatzen (ez dago gizarte-aldaketarik), eta **iruditegi meritokratikoa mantentzen laguntzen du.**
- **Kurrikulum ezkutuaren ondorioz**, ikasle bikain moduan agertzen dira eskola-errendimendu ona duten klase altuko seme-alabak, eta gogotsu eta langile moduan, gehienez ere, klase apalekoak.
 - https://www.youtube.com/watch?v=3mChkak7_3A
 - <https://www.youtube.com/watch?v=uVb2w73dwH0>

Ariketa



- Zer ulertu dugu?
- Zein ideia azaldu dira bideoan?
- Taldeka, bideoaren ideia nagusiak atera
- Zer esan nahi dute Bourdieu-ren hurrengo esaldiek?
 - “El sistema escolar es el lugar donde se fabrican las personas”
 - “Los grupos sociales garantizan su continuidad”
 - “Las capacidades, aptitudes, cualidades que se exigen son un producto social”
 - “Los mecanismos sociales no tienen intención”

Ikuspegi kritikoa: birsortze teoriak

- **Samuel Bowles eta Herbert Gintis:** Lan-merkatuaren eta eskolaren arteko harreman estua aztertu zuten.
- Eskolak jendea lan-merkaturako **entrenatzen** eta **sailkatzen du**; ez horrenbeste erakusten diren ideologia edo edukien bitartez, **eskola-praktika eta -esperientziaren bitartez** baizik.
 - Lan-munduko **harreman hierarkikoak** eskolan ere **gertatzen dira** (administrazioaren, ikasleen eta irakasleen artean)
 - Lan munduko **alienazioa** ere **eskolan islatzen da**: ikasleek ez baitute kontrolatzen zer eta nola ikasten duten
 - Garrantzitsuena ez da ikasketa-prozesua, **prozesu amaierako kalifikazioak** baizik

Ikuspegi kritikoa: birsortze teoriak

Mailaketa soziala eta sozializazio diferentziala (Bowles eta Gintis)

Beheko mailak
(lehen
hezkuntza):
esanekotasuna,
obedientzia

Erdiko mailak
(bigarren
hezkuntza):
seriotasuna eta
fidagarritasuna

Goiko mailak
(unibertsitatea):
ekimena eta
autonomia

Ikuspegi kritikoa: erresistentzia teoriak

- Interpretazio horrek **motibazioa galarazi dezake irakasle kontzientziatuei**, eskolako lanaren bidez gizarte-justizia hobetzen lagundu nahi dutenei, alegia.
- Edozein jendarte bateko eskolak klaseak birsortzen ditu (gizarte-klaseak baldin badaude) eskolan bertan nahiz kanpoan, baina **ikasleak kontzientzia kritikoan osatzeko espazio irekia ere bada**
- Baita familiek agian ez duten **kultura-ondasuna** ikasleen eskuetan jartzeko espazioa ere
- Eskola **eremu konplexua eta askotarikoa** da, eta mantentze-ideologian sozializatzen du, baina **badu lekua eraldatze-ideologiak ere**

“Hain irmoak ziren birsortzeari eta elkarrekikotasunari buruzko teorien hasierako formulazioak, ezen galdutzat ematen baitzuten eskola barrutik gizarte-a aldatzeko egindako edozein ahalegin”
(Taberner, 2008: 118).

Ikuspegi kritikoa: erresistentzia teoriak



- **Egitura sozialak** (ekonomiak, lan-merkatuak, kulturak,..) **eragin handia dauka** gure bizitzan, **baina** hezkuntzak eta pertsonak ere badute zerbait egiteko ahalmena: **erresistentzia-ahalmena**.
 - 1979ko ikerketa batek egiaztatu zuen eskolak lanpostu-ezberdintasunen %55 eta soldata-ezberdintasunen %20 esplikatzen zuela
 - Beraz, eskolak eragin nabaria du pertsonarengan
- Eskolan porrota izan dutenak **ez dira ideologia indartsu baten biktima pasiboak**

Ikuspegi kritikoa: erresistentzia teoriak

- **Paul Willis:** Langile klasea ez da ez pasiboa, ezta ezjakina ere, kultura menderatzailearen aurkako oposizioak badira.
- Langile-klaseak **talde-kultura bat eratzen du** eta nolabaiteko boterea eta kontrola lortzen du bere bizitza esperientzietatik.
- **Erresistentzia-jarrera edo –kultura** bat agertzen dute eskolan:
 - Eskolako lanak ekiditeko eta ez aspertzeko gaitasuna, argot propioa, umore berezia, estetika propioa, norberaren gastuetarako dirua irabazten jakitea,..
 - Era berean, indarkeria, eskola-porrota, behe-mailako lanpostuetan geratu beharra, erresistentziaren ondorioz lorpenik ez izatea
- Korrante honek **Paulo Freire-ren pedagogia kritiko eta humanistaren eragina** izan du

Ikuspegi kritikoa: erresistentzia teoriak

- **Michael Apple:** Aldaketarako aukera ikusi zuen klase, genero edo etnia ezberdintasunen aurka borrokatzen ari direnen partetik, **hezkuntza eta gizarte demokratikoago bat lortzea posible da modu horretan**
- **Curriculuma eta eskola nola demokratizatu:** elkarrizketaren eta parte-hartzearen garrantzia azpimarratu zuen



Ikuspegi kritikoa: erresistentzia teoriak

○ ESKOLA DEMOKRATIKOA

- “Goitik” curriculum bat ezarri ordez, ikasleek, familiek, irakasleek eta oro har komunitateak parte hartu beharko luke eskolan
- Ezagutza kolektiboa eta komunitate horren balio eta interesen araberakoa izango da
- Eskolako edukiek eguneroko bizitzarekin harreman estuagoa izan beharko lukete
- Ikasleen rol pasiboa aktibo bihurtu, jendartean kritikotasunez parte hartzen

Eskola demokratikoaren eredua

- **Eskola demokratikoa** (Michael Apple eta James Beane) eta **subjektuaren eskola** (Alain Touraine, F. Dubet, D. Martuccelli).

- **Helburua:** ikaslearen autonomia bultzatzea, garapena, bizitza emankorra alderdi pertsonalean zein sozialean

- Talde lana
- Ikasleentzako interesa duten gaiak eta materialak

- **Harreman sozialak** bultzatu behar dira (eskolaren eta komunitatearen arteko harremanak)

2. GAIA. Sozializazioa

Sozializazioaren agenteak: Komunikabideak

Komunikabideak

- Komunikabideak, masa-komunikaziorako bideak, *mass media*,..
- Jendeak elkarren artean komunikatzeko bitartekoak edo kanalak dira



ALDE

- Gure ikuspuntua zabaltzeko tresna.
- Denon eskura jartzeko baliabideak

- Teknologia baliabideak eman sarean lantzeko:

osasuna,
kutsadura ez,
aurerapausoak,
teknologiak

- Munduko beste txokoetako errealitatea ezagutzeko aukera.

- Arazoak ez da tresna, erabilera berririk

- Langile klasearen arteko elkarratasuna: Txile, Katalunia,

- Estatu burgesek erakusten ez duten errealitatea ezagutzeko aukera

- Erabilera da garrantzitsua.

- Lana bilatzeko tresna da, lanbide berriak sortu.

- Estresa sortu, jostunak, jostunak, jostunak, jostunak ez.

- Ordenagailuak kutsatzen dituzte. Mugikorra / teknologia ez dutenak berririk ez.

KONTRA

- Praktikan ez da gertatzen, adierazpen askatasunik ez.

- Gertuko harremanak ez zaituzte dakar.

- Menpekotasuna, adiktzioa sortu dezakete (sare sozialek).

- Gudan kusten dugu eragina, datuak erakusten dute

- Elkarratasuna adierazteko beste bide batek dauka

Ez du manipulazioa ekiditen,

- Kontzentrazio beharrikoa

Komunikabideak

Aldeko eta kontrako argudioak

KOMUNIKABIDEAK



Aldeko argudioak

- Partehartzea
- Sormena
- Eztabaida publiko arrazionala
- Informazioa eta entretenimendua jende guztiari zabaltzea
- Aniztasuna

Kontrako argudioak

- Kulturen homogeneizazioa
- Pasibotasuna, konformismoa, kritikotasun eza
- Manipulazio arriskua
- Kontsumismoa
- "Simulazioaren eta espektakuluaren gizartea"

KOMUNIKABIDEAK



INTERNET-EN "IRAULTZA"

Informazio kantitate
itzela

Komunikazio interaktiboa
ahalbideratzen da

Agente sozial txikiek ere erabil dezakete

Informazioa zabaltzeko

Globalizazio aurkako
mugimenduak

Interneten erabilerari dagokionez
desberdintasun sozial handiak

KOMUNIKABIDEAK



Eragin handia

Eragin handia
"kontzientzia kolektiboan"

Nortasuna eratzeko,
sozializatzeko ahalmen handia

Erosotasuna, irudien indarra, pertsuasio emozionala

Baina ez mekanikoa

Umeez mezuak interpretatu eta berreraiki egiten dituzte

Autonomiaz erabiltzeko aukera (Hezkuntza sistemaren erronka, "alfabetizazio digitala")

KOMUNIKABIDEAK

“Komunikabideen **oparotasun kuantitatiboaren atzean**, komunikazioaren egiazko **miseria kualitatiboa ezkututzen da** (Alonso, 1989: 73), eta *zapping* egiteko askatasunaren atzean, lehen mailako eta bigarren mailako sozializazioari eragiten dioten **bitartekaritza ideologikoak** daude (ereduak, ohiturak, rolak, kontsumoa,..)” (Taberner, 2008: 94).

- **Alfabetizazio digitala:** informazioaren eta irudien gehiegizko ugaritasunak nahaspila handia sor dezake eta hautatu egin behar da (Taberner, 2008). Autonomian eta kritikotasunean oinarritutako erabilera sustatzea, hots, jasotzen dugun informazioa ikuspegi kritiko batetik aztertzen ikastea.
- **Komunikabideen eragina sozializazioan:** Komunikabideen sozializazio-eragina kontsumoa bultzatzen harago doa, sexuaren, gurasoen, seme-alaben eta zenbait lanbideren rolak transmititzen dira (Taberner, 2008). Genero estereotipoak eta indarkeria matxista transmititzen dute, besteak beste.